Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko abenduaren 15a, astelehena — 239 — Lunes, a 15 de diciembre de 2025

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

22/2025 Foru Dekretua, abenduaren 2koa, maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Araua partez garatu eta zenbait erregelamendutan aldaketak sartzekoa.

I

Foru dekretu honek hainbat helburu ditu: alde batetik, partez garatzea maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onesten dituena –horrek hainbat figura tributario aldatzea dakar berekin–, eta, bestetik, maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren garapenaz gain, aldaketak sartzea bai Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan eta bai Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduan, bertan gai desberdinak ukituta, errenta salbuetsiak eta jarduera ekonomikoak, kasu. Era berean, doikuntza teknikoak egiten dira zerga arloko jarduketa eta prozeduren inguruan, zerga-bilketarekin lotutakoetan bereziki, eta aldaketak sartzen dira Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan.

II

Maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren erregelamenduzko garapen partziala egiteko arrazoiari dagokionez, foru dekretu honen helburu nagusia da 1/2025 Foru Arauaren 7. eta 8. artikuluetan gizarte aurreikuspenaren zerga tratamenduari buruz jaso diren aldaketak sartzea bai pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren erregelamenduan (urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsian) eta bai sozietateen gaineko zergaren erregelamenduan (ekainaren 16ko 17/20215 Foru Dekretuaren bidez onetsian). Horrez gain, onetsitako arauditik ondorioztatzen diren zenbait doikuntza tekniko ere sartu nahi dira dekretuaren bitartez.

II.I

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, zergaren foru arauaren berrogeita bigarren xedapen gehigarrian jasotzen den aurreikuspena garatzen da, alegia, ezartzen da nola zehaztu behar den gizarte aurreikuspeneko sistemen prestazioetan kapital higigarriaren etekin gisa kalifikatu behar den zatia, behartutako entitateek hura zehazteko informazio guztia jaso ez dutenean. Zehazki, ezarrita uzten da ezen ezagutzen ez diren eskubide ekonomikoak planaren eskubide ekonomiko guztien parte erresidual bat direnean, zergaren foru arauaren 37. artikuluko e) letran aurreikusitakoa izan daitekeela aplikagarri, betiere berezitasun batekin: kasu horretan, parte erresidual hori ekarpen eta kontribuzio handiagotzat hartuko da.

Era berean, beharrezkoa da baldintza operatiboak finkatzea, enpresaburuek edo profesionalek gizarte aurreikuspeneko sis-

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Decreto Foral 22/2025, de 2 de diciembre, por el que se desarrolla parcialmente la Norma Foral 1/2025, de 9 de mayo, y se introducen otras modificaciones reglamentarias.

I

El presente decreto foral tiene finalidades diversas: por una parte, desarrollar parcialmente la Norma Foral 1/2025, de 9 de mayo, por la que se aprueban la reforma del sistema tributario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y otras modificaciones tributarias, lo cual supone modificar diferentes figuras tributarias; por otra parte, al margen del desarrollo de la referida Norma Foral 1/2025, de 9 de mayo, introducir modificaciones en el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y en el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades en materias como la de las rentas exentas y las actividades económicas. Asimismo, se incluyen ajustes técnicos en materia de actuaciones y procedimientos tributarios, en particular en el de recaudación, y se introducen modificaciones en el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales.

II

Por lo que respecta a la primera de las motivaciones, relativa al desarrollo reglamentario parcial de la Norma Foral 1/2025, de 9 de mayo, el presente decreto foral tiene por objeto fundamental introducir en los Reglamentos del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Decreto Foral 33/2014, de 14 de octubre, y del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por el Decreto Foral 17/2015, de 16 de junio, los desarrollos previstos en los artículos 7 y 8 de la referida Norma Foral 1/2025, que recogen las modificaciones relativas al tratamiento tributario de la previsión social, además de incorporar modificaciones de carácter técnico derivadas de la nueva normativa aprobada.

II.I

En el impuesto sobre la renta de las personas físicas se desarrolla la previsión recogida en la disposición adicional cuadragésima segunda de la norma foral del impuesto, relativa a la determinación de la parte de prestación calificada como rendimiento de capital mobiliario en las prestaciones de los sistemas de previsión social, cuando las entidades obligadas no dispongan de toda la información para determinarla. En particular, se especifica que cuando los derechos económicos cuya información se desconozca representen una parte residual de la totalidad de derechos económicos del plan, podrá ser de aplicación lo previsto en la letra e) del artículo 37 de la norma foral del impuesto, con la especialidad de que, en tal caso, dicha parte residual tendrá consideración de mayor aportación y contribución.

También resulta necesario fijar requisitos que resulten operativos para que las aportaciones propias de personas empre-

EK\CV GAO-I-2025-08389

temei egiten dizkieten ekarpen propioak –enpresaburu edo profesional horiek sistema horien sustatzaileak eta partaideak edo mutualista, hartzaile edo bazkide babesleak eta onuradunak direnean aldi berean– proportzionaltzat har daitezen beren kargupeko langileei egindako ekarpenekiko, eta zerga oinarria murrizteko eskubidea eman dezaten, betiere enpleguko gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpen eta kontribuzioetarako ezarritako mugen barruan. Horri dagokionez, ezartzen da ekarpen propioak ezin direla izan beren langileei egindako ekarpenen batezbestekoa baino 1,5 aldiz handiagoak.

Gainera, gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenek eta kontribuzio enpresarialek jasotzen duten tratamendu fiskala aldatu izanak, baita prestazioei ematen zaiena ere, beharrezko egiten du, alde batetik, erregelamenduan jada sartuta dauden artikulu jakin batzuk egokitzea eta, bestetik, tratamendu fiskal berri horren inguruko zenbait alderdi zehaztu edo argitzea.

Alde horretatik, ezartzen da zein hurrenkeratan aplikatuko diren gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenak eta kontribuzio enpresarialak, hala ekitaldikoak nola aurreko urteetan egindakoen soberakinei dagozkienak. Izan ere, gai horrek eragina izan dezake enpleguko gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenetarako aurreikusitako kenkariak aplikatzeko garaian.

Era berean, 70 bis artikuluaren bidez, zeina Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren V. tituluko III bis kapitulu berri batean txertatzen baita, enpleguko gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenengatik aplika daitezkeen kenkariei buruzko hainbat alderdi arautzen dira. Alde batetik, garatzen da 1/2025 Foru Arauaren bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa, eta, horretarako, zehazten da zein parametro aplikatuko diren entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordin osoa zehazteko, datu hori behar-beharrezkoa baita besteren konturako langileek gizarte aurreikuspeneko entitateei egindako ekarpenengatik aplika ditzaketen kenkariak kalkulatzeko. Bestalde, badira beste alderdi batzuk ere enpleguko gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenengatik aurreikusitako kenkarien aplikazioarekin lotuta arautzen direnak, hala nola kenkariaren sorrera, aurreko urteetan murriztu ez diren ekarpenen soberakinak murriztearen ondorio denean, edo kenkariak aplikatzeko hurrenkera, ekitaldiko ekarpenengatik sortutako kenkariekin batera aurreko ekitaldietako ekarpenei dagozkien kenkariak ere ageri direnean.

Prestazioen zerga tratamenduari dagokionez, ezartzen da errenta moduan jasotako prestazioen parte diren kapital etekinak salbuesteko baldintzak ez betetzeak aplikatutako onura galtzea ekarriko duela, eta hura zein modutan erregularizatu beharko den ere ezartzen da. Gai horretan ere, ñabardura bat sartzen da prestazioak errenta moduan jasotzeko iraupenaren beharkizunari dagokionez bai jasotzailearen heriotza kasuan eta bai zurztasun prestazioen kasuan.

Prestazioen zerga tratamenduan bereizketa bat egiten denez prestazio horretan ekarpenei eta kontribuzio enpresarialei dagokien zatiaren eta haietatik eratorritako etekin positiboari dagokion zatiaren artean, tratamendu berritzaile hori arautzea helburu duten hainbat artikulu berri sartzeaz gainera, egokitzapen batzuk ere egiten dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak indarrean duen erregulazioan, kontuan hartuta aurreneko tokian aipatutako prestazio zatia bakarrik hartuko dela lan etekintzat, eta bigarren tokian aipatutako prestazio zatia kapital higigarriaren etekintzat joko dela. Ondorio horietarako, bi artikulu egokitzen dira: lan etekin jakin batzuei aplikatu beharreko integrazio portzentajeak arautzen dituena (15. artikulua), eta lan etekinen gaineko atxikipenen zenbatekoa arautzen duena (99. artikulua), bai eta laugarren xedapen iragankorra ere, aurreikuspen entitateetatik kapital moduan jasotzen diren bigarren edo ondorengo prestazioen integrazioari buruzkoa.

sarias o profesionales a sistemas de previsión social de los que a su vez sean promotoras y partícipes o mutualistas, tomadoras o socias protectoras y beneficiarias, se consideren proporcionales respecto a las contribuciones realizadas a las personas trabajadoras a su cargo, y por tanto, con derecho a reducción de la base imponible dentro del límite establecido para las aportaciones y contribuciones a sistemas de previsión social de empleo. A este respecto, se establece que las aportaciones propias no deben exceder de 1,5 veces la media de las contribuciones realizadas a sus personas trabajadoras.

Además, como consecuencia de la modificación del tratamiento fiscal de las aportaciones y contribuciones empresariales a tales sistemas de previsión social, así como de sus prestaciones, resulta necesario, por una parte, adecuar determinados artículos ya incluidos en el reglamento, así como concretar o aclarar determinados aspectos relacionados con dicho nuevo tratamiento fiscal.

En este sentido, se establece el orden de aplicación de las aportaciones y contribuciones a sistemas de previsión social, tanto del ejercicio como de los excesos resultantes de las efectuadas en años anteriores, aspecto que puede tener, en su caso, incidencia en las posibilidades de aplicar las diferentes deducciones previstas para aportaciones a sistemas de previsión social de empleo.

Asimismo, a través de un artículo 70 bis que se incorpora en un nuevo capítulo III bis del título V del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Física, se regulan diferentes aspectos relativos a las deducciones por aportaciones a sistemas de previsión social de empleo. Por una parte, se desarrolla lo dispuesto en la disposición adicional segunda de la citada Norma Foral 1/2025, estableciéndose los parámetros para determinar el salario bruto anual en la entidad empleadora, dato este que resulta imprescindible para calcular las deducciones por aportaciones a entidades de previsión social por parte de las personas trabajadoras por cuenta ajena. Por otra parte, se regulan otros aspectos relativos a la aplicación de las deducciones por aportaciones a sistemas de previsión social de empleo, como la generación de deducción cuando esta deriva de la reducción de excesos de aportaciones no reducidas en años anteriores o el orden de aplicación de las deducciones cuando concurren deducciones generadas por aportaciones del propio ejercicio con deducciones correspondientes a aportaciones de ejercicios anteriores.

Por lo que respecta al tratamiento tributario de las prestaciones, se determina la incidencia del incumplimiento de requisitos para la aplicación de la exención sobre los rendimientos de capital que forman parte de las prestaciones en forma de renta, que supondrá una pérdida del beneficio del que se disfrutó, y la forma de regularizarla. En esta misma materia, se introduce una matización respecto al requisito de la duración en la percepción en forma de renta en caso de fallecimiento de la persona perceptora y en relación con las prestaciones de orfandad.

Como consecuencia de la diferenciación en el tratamiento tributario de las prestaciones entre la parte de la misma correspondiente a las aportaciones y/o contribuciones empresariales y la parte correspondiente al rendimiento positivo procedente de dichas aportaciones y/o contribuciones, además de incorporarse nuevos y diversos preceptos para regular dicho tratamiento novedoso, se adecúa la regulación ya vigente del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, teniendo en cuenta que solo la parte de prestación citada en primer lugar continuará teniendo la consideración de rendimientos del trabajo, y que la parte de prestación citada en segundo lugar tendrá la consideración de rendimiento del capital mobiliario. A estos efectos, se adecúan los artículos reguladores de los porcentajes de integración aplicables a determinados rendimientos del trabajo, artículo 15, y del importe de las retenciones sobre rendimientos del trabajo, artículo 99, y la disposición transitoria cuarta, reguladora de la integración de segundas o ulteriores prestaciones en forma de capital derivadas de entidades de previsión.

EK\CV GAO-I-2025-08389

Bereizketa horren ondorioz sartzen diren artikulu berrien artean, nabarmendu daiteke kapital higigarriaren etekin gisa identifikatutako prestazio zatiaren atxikipen oinarria zehazten dela.

Era berean, xedapen iragankor berri bat gehitzen da, hamalaugarrena, 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen egindako ekarpen eta kontribuzioetatik datozen prestazioen araubide iragankorra nola aplikatu behar den argitzeko. Araubide hori zergaren foru arauaren hogeita hamaseigarren xedapen iragankorrean aurreikusita dago.

II.II

Sozietateen gaineko zergan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan bezala, artikulu bat gehitzen da aipatutako 1/2025 Foru Arauaren bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa garatzeko eta entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordin osoa zehaztea ahalbidetuko duten parametroak ezartzeko. Izan ere, datu hori ezinbestekoa gertatzen da kalkulatzeko zer kenkari diren aplikagarriak enpresa enplegatzaileek gizarte aurreikuspeneko entitateei egindako kontribuzio enpresarialengatik.

III

Bestalde, gizarte aurreikuspenaren zerga tratamendua garatzeaz gain, 1/2025 Foru Arauaren ondorio diren hainbat aldaketa ere sartzen dira bi erregelamenduetan.

III.I

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan honako hauek aipa daitezke: desgaitasun eta mendekotasun maila frogatzeko eraren erregulazioa egokitzen da, haren aplikazio eremua beste kenkari batzuetara ere zabaltzeko (adingabeak eta mendekotasun edo desgaitasun maila jakin bat duten pertsonak zaintzeagatik, ohiko etxebizitza alokatzeagatik eta birgaitze babestuagatik aplikatzen diren kenkarietara, hain zuzen); egokitzapenak egiten dira etxebizitza kontuei buruzko erregulazioa 1/2025 Foru Arauak kenkari horren inguruan ezarri dituen erregela berrietara egokitu dadin; eta autolikidatzeko obligazioaren erregulazioa obligazio horren eskema berrira egokitzen da lan etekinak jasotzen diren kasuetarako: atalase bikoitzeko eredua aplikatu beharrean 20.000 euroko atalase bakarra aplikatzen da orain, eta, horren ondorioz, autolikidatzeko hautazko sistema, lan etekinen gainean bakarrik aplikatu diren atxikipen portzentajeen tauletan oinarritua, desagertzen da.

III.II

Sozietateen gaineko zergan, zergaren foru arauan sartutako aldaketetatik ondorioztatzen diren doikuntza tekniko batzuk egiteaz gainera –hala nola ustiapen ekonomikoaren kontzeptuari dagokiona, mikroenpresa, enpresa txiki eta enpresa ertain gisa ematen den kalifikazioan eragiten duena, bai eta ondare sozietatearenean ere–, eta entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordinaren erregulazioa, lehen aipatutakoa, sartzeaz aparte, ondoren jasotzen diren beste gai hauek ere arautzen dira.

Gutxieneko tributazio tasaren zehaztapenari dagokionez, eta, zehazki, 100eko 15eko muga aplikatzeko aukerarekin lotuta, argitzen da hura aplikagarria izango dela baldin eta inbertsioak benetan egiten badira, eta, inola ere ez, inbertsioetatik ondorioztatutako kenkarirako eskubidea sortze hutsagatik.

Aparteko mozkinen gaineko tributazio gehigarriari dagokionez, hura aplikatzeko irizpideak zehazten dira. Zehazki, argitzen da zer hartu behar den kontabilitate emaitza positibotzat, erreferentziazko ekitaldiak zehazten dira –baita jarduera hasten denean edo berriro heltzen zaionean ere–, eta zerga baterakuntzaren araubidean dauden taldeei aplikatu beharreko berezitasunak ezartzen dira.

Entre los nuevos preceptos incorporados como consecuencia de dicha diferenciación, cabe aludir a la determinación de la base de retención de la parte de prestación identificada como rendimiento del capital mobiliario.

Se incluye, asimismo, una nueva disposición transitoria, la decimocuarta, para aclarar la aplicación del régimen transitorio de las prestaciones que deriven de aportaciones y contribuciones realizadas con anterioridad a 1 de enero de 2026, previsto en la disposición transitoria trigésima sexta de la norma foral del impuesto.

II.II

En el impuesto sobre sociedades, al igual que en el impuesto sobre la renta de las personas físicas, se incluye un artículo para desarrollar lo dispuesto en la disposición adicional segunda de la citada Norma Foral 1/2025, y establecer los parámetros para determinar el salario bruto anual en la entidad empleadora, dato este que en este caso resulta imprescindible para calcular las deducciones por contribuciones empresariales a entidades de previsión social por parte de las empresas empleadoras.

III

Por otra parte, al margen del desarrollo del tratamiento tributario de la previsión social, se introducen también otras modificaciones derivadas de la citada Norma Foral 1/2025 en ambos reglamentos.

III.I

En el impuesto sobre la renta de las personas físicas cabe citar las siguientes: la adecuación de la regulación relativa a la acreditación del grado de discapacidad y de dependencia, que extiende su ámbito de aplicación también a las deducciones por cuidado de menores y personas con determinado grado de dependencia o discapacidad, por alquiler de vivienda habitual y por rehabilitación protegida; la adaptación de la regulación relativa a las cuentas vivienda a las nuevas reglas de deducción previstas en dicha Norma Foral 1/2025; la acomodación de la regulación relativa a la obligación de autoliquidar al nuevo esquema de dicha obligación en caso de percepción de rendimientos del trabajo, que sustituye el modelo de doble umbral por un único umbral fijado en 20.000 euros, y elimina, en consecuencia, el sistema opcional de autoliquidación en base a las tablas de porcentajes de retención aplicables exclusivamente sobre los rendimientos del trabajo.

III.II

En el impuesto sobre sociedades, además de los ajustes meramente técnicos derivados de las modificaciones incluidas en la norma foral del impuesto –como la relativa al concepto de explotación económica, que incide en su calificación como microempresa, pequeña y mediana empresa, así como en la de sociedad patrimonial– y de la incorporación, antes citada, de la regulación relativa al salario bruto anual en la entidad empleadora, se regulan otras materias que se relacionan a continuación.

En relación con la determinación del tipo mínimo de tributación, y en particular con la aplicación del límite del 15 por 100, se aclara que su aplicación está supeditada a la efectiva realización de las inversiones, y no a la generación del derecho a la deducción derivada de las mismas.

Con respecto a la tributación adicional sobre beneficios extraordinarios, se precisan los criterios para su aplicación. En particular, se aclara qué debe entenderse por resultado contable positivo, se determinan los ejercicios de referencia –también en supuestos de inicio o reinicio de actividad– y se establecen las especialidades aplicables a los grupos en régimen de consolidación fiscal.

EK\CV GAO-I-2025-08389

IV

Aurrekoaz aparte, 1/2025 Foru Arauaren onespenak dakartzan aldaketekin amaitzeko, beharrezkoa da aldatzea, halaber, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Erregelamendua, eta horren helburua da haren barruan jasotzea zergaren foru arauaren 11.1 artikuluko b) letran ezarritakoa, alegia, etxebizitzaren erosketan 100eko 4ko tasa aplikatzeko, ezinbesteko baldintza izango dela zergaduna ez izatea 5 etxebizitza baino gehiagoren titularra 100eko 50etik gorako portzentajean, eta, aurrenik zirkunstantzia hori frogatu beharko dela erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuta. Ondorio horietarako, zehazten da zer datu jaso beharko diren erantzukizunpeko adierazpen horretan.

V

Aipatutako 1/2025 Foru Arauaren garapena alde batera utzita, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan beste aldaketa batzuk ere sartzen dira, besteak beste, jarraian adierazten direnak.

Sektore publikoak ematen dituen eta salbuetsita dauden laguntza publikoen barruan honako hauek sartzen dira: Gipuzkoako Lurralde Historikoko baserritar misto profesionalentzat aurreikusitako laguntzak, Diputatuen Kontseiluak 2025eko urtarrilaren 28ko bileran eta 2025eko maiatzaren 27ko bileran onetsiak, bi laguntza horiek nekazaritzan aritzen diren edo arituko diren pertsona fisikoei zuzenduak; Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazaritza ustiategietan inbertsioak egiteko bideratutako laguntzak, Diputatuen Kontseiluak 2024ko abenduaren 3ko bileran onetsiak; eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako laguntza ekonomikoa, Eusko Jaurlaritzako apirilaren 16ko 48/2024 Dekretuan aurreikusia.

Lurraldeko lehen sektoreari eusten laguntze aldera, aldaketak sartzen dira nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza jardueren etekina zuzeneko zenbatespenaren modalitate sinplifikatuaren arabera kalkulatzeko aplikatu beharreko erregela berezietan.

Alde horretatik, nekazaritza eta abeltzaintza jardueretan sinplifikatu egiten dira gastuaren forfaita konputatzeko erregelak, bikoiztasunik egon ez dadin; horrela, orain arte erabilitako erregela, alegia, aurreko urtean 30.000 eurotik beherako eragiketa bolumena zuten zergadunek aplikatzen zutena, desagertu egiten da, eta orain jarduera guztietara zabaltzen da aurreko urtean 30.000 eurotik gorako eragiketa bolumena zuten zergadunek lehenago aplikatzen zutena, eragiketa bolumena edozein dela ere; hau da, gastu gutxigarria proportzionala izango da jardueraren diru-sarreren eta gastu jakin batzuen arteko diferentziarekiko. Gainera, kontsolidatuta geratzen da azken urteotan behin-behinean aplikatu den 100eko 70ko gastu gutxigarria, hainbat arrazoi direla medio urte hauetan guztietan pilatu eta handituz joan diren ekoizpen kostuak igotzearen ondorioz onetsi egin zena. Aipatutako lehen erregela ezabatzearen ondorioz, bertan behera utzi beharra dago, baita ere, erregela horren arabera tributatzen zuten ustiategien titularrak liburuak eramateko obligaziotik salbuesteko aurreikuspena, zergaren erregelamenduaren 80 bis artikuluan jasotzen zena eta erregela hori konfiguratzeko moduarekin lotu-lotuta zegoena.

Basogintza jardueretan, alde batetik, ezartzen da gaixotutako zuhaitzen mozketagatik jasotako diru-sarrerak ez direla konputatuko jardueraren diru-sarreren artean, eta, bestetik, gastu kengarriaren portzentajea 100eko 75etik 100eko 85era igotzen da moztutako azalerak basoberritzen diren kasuetan; gainera, basoberritze hori hostozabal autoktonoekin egiteko beharkizuna ezabatzen da.

Era berean, erregelamenduan sartzen dira errepide bidezko merkantzien garraio jardueren etekina zuzeneko zenbatespenaren modalitate sinplifikatuan kalkulatzeko aplikatu beharreko

IV

Con independencia de lo anterior, para terminar con las modificaciones derivadas de la aprobación de la Norma Foral 1/2025, se modifica el Reglamento del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados del Territorio Histórico de Gipuzkoa, para incorporar al mismo, tal y como se establece en la letra b) del artículo 11.1 de la norma foral del impuesto, las condiciones de la declaración responsable acreditativa, en primera instancia, de que la persona o entidad contribuyente no es titular de más de 5 viviendas en un porcentaje de titularidad superior al 50 por 100, condición indispensable para poder así aplicar el tipo del 4 por 100 en la adquisición de vivienda. A estos efectos, se detallan los datos que deben constar en dicha declaración responsable.

V

Con independencia del desarrollo de la referida Norma Foral 1/2025, en el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas se incluyen otras modificaciones, entre las que cabe destacar las que se exponen a continuación.

En materia de exenciones de ayudas públicas prestadas por el sector público, se incluyen las ayudas para baserritarras mixtos profesionales del Territorio Histórico de Gipuzkoa acordadas por el Consejo de Gobierno Foral en su reunión de 28 de enero de 2025, así como las acordadas en su reunión de 27 de mayo de 2025, recibidas ambas por las personas físicas que ejerzan o vayan a ejercer la actividad agraria, las ayudas a inversiones en explotaciones agrarias del Territorio Histórico de Gipuzkoa acordadas por el Consejo de Gobierno Foral en su reunión de 3 de diciembre de 2024, y la ayuda económica para las hijas e hijos huérfanos de víctimas mortales de la violencia machista contra las mujeres, prevista en el Decreto del Gobierno Vasco 48/2024, de 16 de abril.

Se introducen modificaciones en las reglas especiales aplicables a la modalidad simplificada del método de estimación directa para las actividades agrícolas y ganaderas, así como para las forestales, con el objetivo de favorecer el sostenimiento del sector primario del territorio.

En este sentido, en las actividades agrícolas y ganaderas se simplifican las reglas de cómputo del forfait de gasto, eliminando la duplicidad de reglas al suprimir la que era de aplicación por las personas contribuyentes cuyo volumen de operaciones en el año anterior no superara los 30.000 euros, y extendiendo a todas las actividades, con independencia del volumen de operaciones, la que anteriormente era aplicable por contribuyentes cuyo volumen de operaciones en el año anterior superara los 30.000 euros, y que consiste en un gasto minorable proporcional a la diferencia entre los ingresos de la actividad y determinados gastos. Además, se consolida el porcentaje de gasto minorable del 70 por 100 que se ha aplicado con carácter temporal en los últimos años, y que se aprobó con motivo del incremento en los costes de producción que, por diversos factores, se han ido acumulando en estos últimos años. Como consecuencia de la supresión de la primera regla anteriormente citada, procede eliminar también la exclusión de la obligación de llevanza de libros por las personas titulares de explotaciones que tributaban con arreglo a dicha regla que se fijaba en el artículo 80 bis del reglamento del impuesto, exclusión de obligación que estaba directamente vinculada a la forma en que estaba configurada dicha regla.

En las actividades forestales, por una parte, se establece que no computarán entre los ingresos de la actividad los percibidos a raíz del talado motivado por enfermedad de la foresta, y por otra, se eleva del 75 al 85 por 100 el porcentaje del gasto deducible en caso de repoblación de las superficies taladas, eliminándose además la exigencia de que la repoblación se efectúe con especies frondosas autóctonas.

Al mismo tiempo, se incorpora al reglamento las reglas especiales aplicables a la modalidad simplificada del método de estimación directa para las actividades de transporte de mercancías

EK\CV GAO-I-2025-08389

erregela bereziak, orain arte zergaren foru arauaren hogeita zazpigarren xedapen gehigarrian araututa egon direnak eta, foru arau horren 28. artikuluko 2. apartatuan xedatutakoari jarraikiz, erregelamendura ekarri nahi direnak.

Jarduera ekonomikoen etekinen gaineko atxikipenak arautzen dituen artikulua egokitzen da lan harreman baten ondorioz ematen ez diren hitzaldi, mintegietako ponentzia, ikastaro edo antzeko jarduketengatik lortzen diren etekinak jarduera profesionalaren etekin gisa atxikitzeko obligazioari egiten zaion berariazko aipamena ezabatzeko. Izan ere, 2024. urteaz geroztik, zergaren foru arauan aldatu egin zen ikastaroak, hitzaldiak, solasaldiak, mintegiak eta antzekoak emateagatik jasotzen diren etekinen zerga tratamendua, eta harrez gero horiek guztiak lan etekintzat hartzen dira, jarduera ekonomikoen esparruan lortzen direnean izan ezik.

VI

Aurrekoa alde batera utzita, zioen azalpen honen hasieran aipatu den bezala, aldaketa teknikoak sartzen dira Zerga-bilketako Erregelamenduan eta baita beste aldaketa batzuk zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan, betiere sistema eta bitarteko elektroniko berrien bidez egindako ordainketa modalitate berrien gero eta garrantzi handiagoaren ondorioz.

VI.I

Zerga-bilketako Erregelamenduaren aldaketa teknikoei dagokienez, gerorapenen eta zatikapenen izapidetzeari eta ebazpenari buruzkoak nabarmendu behar dira, bai eta haien iraupen aldian zorrak konpentsatzeari buruzkoak ere.

VI.II

Foru dekretu honen bidez Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan sartzen diren aldaketak ekonomiaren globalizazio progresiboaren ondorio dira, zeina lagunduta baitator etengabeko aurrerapen teknologikoengatik eta Europar Batasunak finantza zerbitzuen prestazioarekin lotuta araugintza arloan egin duen harmonizazio lanarengatik. Horrek guztiak berekin ekarri du sistema ekonomikoan ordainketa zerbitzu eta modalitate berriak agertzea, baita agente berriak ere, ordainketa entitateak eta diru elektronikoko erakundeak esate baterako, zeinek, sistema digitaletan eta komunikazioaren teknologietan oinarrituta, posible baitute zerbitzu berri horiek eskaintzea, baita kanpotik zuzenean ere, Espainian baimenduta edo kokatuta dauden agenteekin lehia betean.

Ordainketa zerbitzu eta modalitate berri horiek, hala nola ordainketa kontuak eta txartel bidezko ordainketak, edo enpresa munduan telefono mugikorreko zenbakiei lotutako ordainketa sistemen erabilera, guztiz eraginkorrak dira finantza mugimenduak arinagoak eta azkarragoak izan daitezen.

Errealitate berri horretara egokitzea ezinbestekoa izanik, ordainketa entitateak eta diru elektronikoko erakundeak sartuta geratu ziren Kapitalen Zuriketa eta Terrorismoaren Finantzaketa Prebenitzeari buruzko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen aplikazio eremu subjektiboan, eta, beraz, entitate horiek behartuta daude egoki jarduteko arauak betetzera eta lege horretan eta haren garapeneko araudian ezarrita dauden informazio betebeharrak konplitzera. Gainera, obligazio horiek pertsona edo entitate ez-egoiliarrek ere bete behar dituzte, baldin eta, sukurtsalen bidez edo zerbitzu prestazio librean jardunduta, agente horien berezko jarduerak egiten badituzte. Informazio betebehar horien artean, Finantza Titulartasunen Fitxategiari buruzkoa dago, zeinean betiko kontuak jasotzeaz gainera (kontu korronteak, aurrezki kontuak eta gordailuak), ordainketa kontuak ere sartzen baitira, beharrezkoa izanik, gainera, fitxategiari kontuen titular errealen

por carretera que hasta ahora han estado reguladas en la disposición adicional vigesimoséptima de la norma foral del impuesto, y que, atendiendo a lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 28 de dicha norma foral, se pretende trasladar al reglamento.

Se ajusta el artículo regulador de las retenciones sobre rendimientos de actividades económicas, suprimiendo la referencia expresa a la retención como rendimiento de actividad profesional de los rendimientos derivados de conferencias, ponencias en seminarios o cursillos u otras actuaciones análogas que no se presten como consecuencia de una relación laboral, toda vez que desde el año 2024 se modificó en la norma foral del impuesto el tratamiento tributario de los rendimientos derivados de impartir cursos, conferencias, coloquios, seminarios y similares pasando a tener consideración de rendimiento del trabajo, salvo que se obtengan en el marco de actividades económicas.

VI

Al margen de lo anterior, como se ha mencionado al inicio de esta exposición de motivos, se introducen modificaciones de carácter técnico en el Reglamento de Recaudación, así como modificaciones en el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales como consecuencia de la creciente importancia de las nuevas modalidades de pago realizados por los nuevos sistemas y medios electrónicos.

VI.I

Con respecto a las modificaciones técnicas del Reglamento de Recaudación, cabe destacar las que se refieren a la tramitación y resolución de los aplazamientos y fraccionamientos, así como a la compensación de deudas durante la duración de los mismos.

VI.II

Las modificaciones a incorporar al Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales derivan de la progresiva globalización de la economía, favorecida por los continuos avances tecnológicos, unida a la labor normativa armonizadora llevada a cabo en la Unión Europea en relación con la prestación de servicios financieros. Todo ello ha determinado la incorporación al sistema económico de nuevos servicios y modalidades de pago, junto con nuevos agentes, como son las entidades de pago y entidades de dinero electrónico, que, con apoyo en los sistemas digitales y tecnologías de la comunicación, ofrecen estos nuevos servicios, incluso directamente desde el exterior, en condiciones de competencia con los agentes autorizados o establecidos en España.

Estos nuevos servicios y modalidades de pago, como son las cuentas de pago y la utilización de tarjetas, o el uso en el ámbito empresarial de sistemas de pago asociados a números de teléfono móvil, se han mostrado especialmente eficaces a la hora de incrementar la agilidad y la rapidez de los movimientos financieros.

La adaptación a esta nueva realidad determinó la inclusión de las entidades de pago y de las entidades de dinero electrónico en el ámbito subjetivo de aplicación de la Ley 10/2010, de 28 de abril, de prevención del blanqueo de capitales y de la financiación del terrorismo, debiendo éstas observar, por tanto, las medidas de diligencia debida y cumplir con las obligaciones de información establecidas en dicha ley y en su normativa de desarrollo, y alcanzando también a las personas o entidades no residentes que, a través de sucursales, u operando en régimen de libre prestación de servicios, realizan actividades propias de los mencionados agentes. Entre dichas obligaciones de información se encuentra la relativa al Fichero de Titularidades Financieras, que incorpora, además de las cuentas corrientes, de ahorro y depósito tradicionales, las cuentas de pago, y al que deben aportarse, entre otra información, los datos identificativos

EK\CV GAO-I-2025-08389

identifikazio datuak ere gehitzea, besteak beste. Horrez gain, nabarmendu beharra dago kontuei buruz informatzeko obligazio hori hilero bete behar dela.

Aurrekoa aintzat hartuta, zerga araudia kapitalen zuriketa prebenitzeko araudiarekin lerrokatuz, eta ikusita sistema eta bitarteko elektroniko berriak baliatzen dituzten ordainketa sistemak gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari direla eta Espainiako lurraldean presentzia fisikorik ez duten agente gero eta gehiagok ematen dituztela zerbitzu horiek (beste herrialde batzuetan kokatutako agenteek), beharrezkoa da berrikustea Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak, abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 45., 46. eta 47. artikuluetan jasotzen dituen informazio betebeharren egungo eremu subjektibo eta objektiboa.

Bestalde, tributuen esparruan ezin da alde batera utzi edozein motatako txartelen erabileran oinarritutako ordainketa sistemak eta funtsen xedapen moduak garrantzi handia hartzen ari direla ohiko kreditu eta zordunketa txarteletatik haratago, banku kontu bati lotuta egon gabe kasu askotan, eta, horren ondorioz, funtsezkoa da ordainketa sistema edo bitarteko horien erabilerari buruzko informazioa eskuratzea iruzur fiskala ikertzeko eta zerga betebeharrak behar bezala betetzen direla bermatzeko. Horregatik, 47/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan 47 bis artikulua sartzen da, edozein motatako txartelak jaulkitzen dituztenek urtero informazio betebehar bat izango dutela ezartzeko.

Helburu horrekin, 7. artikuluak Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduko 45., 46. eta 47. artikuluak aldatzen ditu, eta 47 bis artikulu berria gehitzen du. Finantza entitateei dagozkien informazio betebeharrei buruzkoak dira denak, eta iruzur fiskalaren aurkako borroka, zerga-bilketako jarduketen eraginkortasuna eta zergadunei ematen zaien laguntza hobetzea dute helburu.

45., 46. eta 47. artikuluen berrikuspenen berrikuntza nagusi gisa, aipatzekoa da ezen, artikulu horien indarrez, ordainketa entitateak eta diru elektronikoko erakundeak informazioa ematera behartutakoen artean sartuta geratzen direla, eta eremu subjektiboak barruan hartzen dituela, oro har, artikulu horietako bakoitzean aurrez definituta dauden entitate guztiak, zerbitzu horiek ematen dituztenean, baita atzerriko entitateak ere, establezimendu bidez jardun edo zerbitzu prestazio librean jardun, nahiz eta, azken kasu horretan, eremu subjektibo hori Espainian egoitza edo establezimendua duten bezeroetara mugatzen den.

Zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduko 45. artikuluan kontuei buruz aurreikusten den informazio obligazioari dagokionez, eremu objektiboan mota guztietako kontuak sartzen dira, banku kontuak zein bankukoak ez direnak, baita, beraz, ordainketa kontuak ere; 46. artikulua, zeinean ezartzen baita Espainian ezarrita dauden enpresaburu eta profesionalei egindako ordainketei buruz informatzeko obligazioa dagoela txartel bidezko kobrantzak kudeatzeko sistemei atxikita daudenean, birformulatu egiten da mota guztietako txartelak eta telefono mugikorreko zenbaki bati lotutako kobrantza sistemak barruan sartzeko. Gainera, jakitun izanik 45. eta 47. artikuluen arabera eman behar den informazioak garrantzi handia duela eta oso erabilgarria dela zerga-bilketa jarduketetarako, iruzur fiskalaren aurka egiteko eta zergadunei ematen zaizkien laguntza zerbitzuak hobetzeko, aldatu egiten da zein maiztasunarekin informatu behar den kontuei buruz eta enpresaburu eta profesionalek kobrantzak kudeatzeko baliatzen dituzten sistemei buruz, halako moduz non, maiztasun hori urtekoa izatetik hilekoa izatera pasatzen baita. Horrekin, desagertu egiten da 3.000 euroko urteko muga garbia kobrantza horiei dagokienez; kontuen kasuan, ordea, informazio ekonomikoa urte bakoitzeko azken hilabeteari dagokion aitorpenean baino ez da eman beharko.

Azkenik, 47 bis artikulu berri bat sartzen da haren bitartez ezartzeko mota guztietako txartelekin egindako eragiketei buruz urtero informatu beharra egongo dela. Informazio betebehar horrek honako hauek hartuko ditu: urtean guztira egin diren ordain-

de los titulares reales de las mismas, debiendo destacarse el carácter mensual de la obligación de suministrar la información sobre las cuentas.

Considerando lo anterior, alineando la normativa tributaria con la de prevención del blanqueo de capitales, y atendiendo a la creciente importancia que están teniendo los sistemas de pagos realizados por los nuevos sistemas y medios electrónicos, así como la creciente prestación de estos servicios por agentes radicados en otros países, sin presencia física en territorio español, resulta necesario revisar el actual ámbito subjetivo y objetivo de las obligaciones informativas reguladas en los artículos 45, 46 y 47 del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013, de 17 de diciembre.

Por otra parte, la importancia que están cobrando los sistemas de pago y de disposición de fondos mediante todo tipo de tarjetas, más allá de las tradicionales de crédito y débito, en muchas ocasiones sin cuenta bancaria asociada, no puede ser desconocida en el ámbito tributario, ya que la obtención de información sobre la utilización de estos sistemas o medios de pago resulta necesaria para la investigación del fraude fiscal y para garantizar el correcto cumplimiento de obligaciones fiscales. Por ello, se introduce el artículo 47 bis en el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, aprobado por el Decreto Foral 47/2013 en el que se establece una obligación de suministro de información de carácter anual para los emisores de todo tipo de tarjetas.

A tal fin, el artículo 7 modifica los artículos 45, 46 y 47 del Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, y añade un nuevo artículo 47 bis, relativos todos ellos a las obligaciones de información correspondientes a entidades financieras, con el objetivo de mejorar la lucha contra el fraude fiscal, la eficacia de las actuaciones recaudatorias y la asistencia al contribuyente.

Como principal novedad en la revisión de los artículos 45, 46 y 47, se incluye entre los obligados a suministrar información en virtud de los referidos artículos, a las entidades de pago y a las entidades de dinero electrónico, y respecto del ámbito subjetivo de obligados, éste queda referido, con carácter general, a todas aquellas entidades previamente definidas en cada uno de dichos artículos que prestan servicios, incluidas las entidades extranjeras, ya actúen mediante establecimiento o en régimen de libre prestación de servicios, si bien en este último caso, circunscrito a los clientes residentes o establecidos en España.

En el ámbito objetivo, por lo que se refiere a la información sobre cuentas comprendida en el artículo 45 del citado Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales, se incluyen todo tipo de cuentas, bancarias y no bancarias, abarcando, por tanto, a las cuentas de pago; el artículo 46, referido a la obligación de informar sobre pagos a empresarios y profesionales establecidos en España adheridos a sistemas de gestión de cobros mediante tarjetas, se reformula con el objeto de incluir cualesquiera tipo de tarjetas así como los sistemas de cobro asociados a un número de teléfono móvil. Además, atendiendo a la importancia y utilidad que la información a suministrar en virtud de los artículos 45 y 47 supone para las actuaciones recaudatorias, de lucha contra el fraude fiscal y de prestación de servicios de asistencia a los contribuyentes, se modifica la periodicidad del suministro de la información sobre cuentas y sobre los referidos sistemas de gestión de cobros a los que se encuentren adheridos los empresarios y profesionales, que pasa de ser anual a mensual, desapareciendo el umbral anual neto de 3.000 euros en relación con dichos cobros, si bien, en relación con las cuentas, la información de carácter económico sólo habrá de facilitarse en la declaración correspondiente al último período mensual de cada año.

Finalmente, mediante la inclusión de un nuevo artículo 47 bis, se añade una nueva obligación informativa de carácter anual relativa a operaciones realizadas con todo tipo de tarjetas. Dicha obligación informativa se refiere al total anual de los abonos,

EK\CV GAO-I-2025-08389

ketak, karguak, kargak, diru ateratzeak eta establezimenduetan egindako gastuak. Txartelak obligaziotik kanpo geratzen dira kargu eta abonuen urteko zenbatekoa 25.000 eurotik gorakoa ez denean.

VII

Xedapen iragankor bakar bat sartu da, eta bertan epe berezi bat ezartzen da nekazaritza eta abeltzaintza jarduerek zuzeneko zenbatespenaren modalitate sinplifikatua 2025eko zergaldirako aukeratzeko eta egindako aukera hori errebokatzeko.

VIII

Bukatzeko, azken xedapen bakarrak ezartzen du noiz jarriko den indarrean foru dekretu hau eta zer ondorio izango dituen.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, entzuna Lege Aholkularitzako Batzordea, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

I. KAPITULUA

1/2025 FORU ARAUAREN GARAPEN PARTZIALA

1. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea.

Aldaketa hauek sartzen dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan, urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsian:

Lehena. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek sartzen dira:

Bat. 35. artikuluko lehen paragrafoa honela geratzen da idatzita:

«Zergaren foru arauak 32.5. artikuluan aipatzen dituen kasuetan, etekin garbia kalkulatzeko garaian gastu kengarritzat hartuko dira etekin hori lortzeko beharrezkoak izan diren gastu guztiak eta etekin horien sorburu diren ondasun eta eskubideek erabileragatik edo denbora igarotzeagatik jasandako narriaduraren zenbatekoa. Guztiarekin ere, gastu kengarrien baturak ezingo du berekin ekarri, ondasun higiezin bakoitzerako, etekin garbia negatiboa izatea.»

Bi. 36. artikuluko 1. apartatua honela geratzen da idatzita:

«1. Zergaren foru arauak 32.5 artikuluan aipatzen dituen kasuetan, kapital higiezinaren etekin garbia kalkulatzeko garaian gastu kengarritzat hartuko dira higiezina eta harekin batera lagatako gainerako ondasunak amortizatzeko bideratutako diru kopuruak, betiere haien balio galera efektiboari baldin badagozkio.»

Hiru. 37. artikuluko 2. apartatua honela geratzen da idatzita:

«2. Zergaren foru arauak 32.5 artikuluan aipatzen dituen kapital higiezinaren etekinek bi urtetik gorako sorreraldia dutenean eta modu zatikatuan jasotzen direnean, zergaren foru arauaren 30.3 artikuluko lehen paragrafoan ezarritako integrazio portzentajeak (100eko 60 edo 100eko 50) aplikatuko dira, baldin eta sorreraldiko urte kopurua, datatik datara konputatua, zatikapenen zergaldi kopuruarekin zatituta ateratzen den emaitza bi urtetik gorakoa bada lehen kasuan edo bost urtetik gorakoa bigarrenean.»

cargos, recargas y retiradas en efectivo y operaciones de gasto en establecimientos, quedando excluidas aquellas tarjetas cuyos importes de cargos y de abonos en el año no hayan excedido de 25.000 euros.

VII

Se incluye una disposición transitoria única donde se establece un plazo excepcional de ejercicio de la opción por la modalidad simplificada del método de estimación directa, y de revocación de la opción, para el periodo impositivo 2025, aplicable a las actividades agrícolas y ganaderas.

VIII

Por último, la disposición final única dispone la entrada en vigor y los efectos del decreto foral.

En su virtud, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, oída la Comisión Jurídica Asesora y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

CAPÍTULO I

DESARROLLO PARCIAL DE LA NORMA FORAL 1/2025

Artículo 1. Modificación del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Se introducen las siguientes modificaciones en el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Decreto Foral 33/2014, de 14 de octubre:

Primero. Con efectos a partir de 1 de enero de 2025 se introducen las siguientes modificaciones:

Uno. El primer párrafo del artículo 35 queda redactado en los siguientes términos:

«En los supuestos contemplados en el artículo 32.5 de la norma foral del impuesto, tendrán la consideración de gasto deducible para la determinación del rendimiento neto, todos los gastos necesarios para su obtención y el importe del deterioro sufrido por el uso o transcurso del tiempo en los bienes o derechos de los que procedan los rendimientos. No obstante, la suma de los gastos deducibles no podrá dar lugar, para cada inmueble, a rendimiento neto negativo.»

Dos. El apartado 1 del artículo 36 queda redactado en los siguientes términos:

«1. En los supuestos contemplados en el artículo 32.5 de la norma foral del impuesto, para la determinación del rendimiento neto del capital inmobiliario, tendrán la consideración de gasto deducible las cantidades destinadas a la amortización del inmueble y de los demás bienes cedidos con el mismo, siempre que respondan a su depreciación efectiva.»

Tres. El apartado 2 del artículo 37 queda redactado en los siguientes términos:

«2. Cuando los rendimientos del capital inmobiliario a los que se refiere el artículo 32.5 de la norma foral del impuesto tengan un período de generación superior a dos años y se perciban de forma fraccionada, se aplicarán los porcentajes de integración del 60 por 100 o del 50 por 100 establecidos en el párrafo primero del artículo 30.3 de la norma foral del impuesto, en caso de que el cociente resultante de dividir el número de años correspondiente al período de generación, computados de fecha a fecha, entre el número de períodos impositivos de fraccionamiento, sea superior a dos o a cinco, respectivamente.»

EK\CV GAO-I-2025-08389

Lau. 42 bis artikulua gehitzen zaio III. tituluko IV. kapituluari, eduki honekin:

«42 bis artikulua. Pertsona jakin batzuek familia etxebizitzaren eskualdaketan lortutako irabaziak salbuestea.

Zergaren foru arauak 42. artikuluko 2. apartatuan aurreikusitakoarekin bat etorriz, zergan salbuetsita egongo dira mendekotasun larria edo handia duten pertsonek eta 65 urtetik gorakoek familia etxebizitza kostu bidez eskualdatzeagatik lortzen dituzten ondare irabaziak, bai eta zordunak edo haren bermatzaileak, hipotekarekin bermatutako zorrak kitatzeari begira, ohiko etxebizitza ordainean emateagatik agerian jartzen direnak ere, betiere baldin eta familia etxebizitza aurreko uneren batean ohiko etxebizitza izan bada zergadunarentzat eta zergadun horrek, senar-emazteak banantzeko edo izatezko bikotea desegiteko prozedura batean, bertan bizitzeari utzi badio erabaki judizial baten ondorioz.

Apartatu honetan aurreikusitako salbuespena aplikatzeko, eskualdaketa egin behar da etxebizitza hori familia etxebizitzatzat hartzen den bitartean, eta, gehienez ere, bi urteko epean izaera hori galtzen duenetik aurrera.

Apartatu honetan aurreikusitako ondorioetarako, familia etxebizitzatzat hartuko da ezkontidea edo izatezko bikotekidea eta, hala badagokio, haien ondorengoak bizitzeko erabiltzen dena, senar-emazteak banandu edo izatezko bikotea desegiteko prozedura horretan epaileak hala erabaki duelako.»

Bost. 58. artikulua honela geratzen da idatzita:

«58. artikulua. Profesionalaren edo banakako enpresaburuaren ekarpen propioen proportzionaltasuna.

Zergaren foru arauak 71.1.b) artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ulertuko da profesionalaren edo banakako enpresaburuaren ekarpen propioek proportzionaltasun gradu bat gordetzen dutela beren kargupeko langileen alde egiten dituzten kontribuzioekiko, horiek ez direnean kontribuzio horien batez bestekoa baino 1,5 aldiz handiagoak.»

Sei. 61. artikuluan 2. apartatua aldatu eta 3. apartatu bat gehitzen da, jarraian datorren eran:

«2. Soberakinak murriztuko dira zerga oinarri orokorra pentsio konpentsagarriekin eta urteko mantenurako ordainketekin murrizteak emaitza positiboa ematen duen lehen ekitaldian, hurrengo bost ekitaldien barruan, baina, betiere, zergaren foru arauaren 70., 71. eta 72. artikuluetan eta bederatzigarren xedapen gehigarrian ezarritako baldintzak eta mugak errespetatuz eta hurrengo 3. apartatuan aurreikusitako hurrenkerari jarraituz. Ondorio horietarako, soberakinak antzinatasunaren arabera murriztuko dira, eta, lehen-lehenik, zaharrenak.

3. Soberakin hori gertatzen den zergaldian zergadunaren ekarpenekin batera sustatzaileak, hartzaileak edo bazkide babesleak egotzitako kontribuzioak ageri badira, eta horiek zergaren foru arauan ezarritako mugak gainditzen badituzte, murriztapenak lehentasun hurrenkera honen arabera aplikatuko dira:

1.a. Aurreko ekitaldietako kontribuzioak.

2.a. Aurreko ekitaldietan enplegu sistemei egindako ekarpenak.

3.a. Aurreko ekitaldietan enplegukoak ez diren sistemei egindako ekarpenak.

4.a. Ekitaldiko kontribuzioak.

5.a. Ekitaldian enplegu sistemei egindako ekarpenak.

6.a. Ekitaldian enplegukoak ez diren sistemei egindako ekarpenak.»

Cuatro. Se añade un artículo 42 bis al capítulo IV del título III, con el siguiente contenido:

«Artículo 42 bis. Ganancias exentas en la transmisión de la vivienda familiar por determinadas personas.

De conformidad con lo previsto en el apartado 2 del artículo 42 de la norma foral del impuesto, estarán exentas las ganancias patrimoniales que se pongan de manifiesto con ocasión de la transmisión onerosa de la vivienda familiar por personas en situación de dependencia severa o gran dependencia y por personas mayores de 65 años, así como las puestas de manifiesto con ocasión de la dación en pago de la vivienda habitual de la persona deudora o garante de la deudora, para la cancelación de deudas garantizadas con hipoteca que recaiga sobre la misma, cuando la vivienda familiar hubiera tenido para la contribuyente la consideración de vivienda habitual en un momento anterior y dicha contribuyente hubiera dejado de residir en la misma por decisión judicial en un procedimiento de separación matrimonial o extinción de la pareja de hecho.

Para aplicar la exención prevista en este apartado, la transmisión se deberá efectuar mientras tenga la consideración de vivienda familiar y, como máximo, en el plazo de dos años desde que dejara de tener tal consideración.

A los efectos previstos en este apartado, tendrá consideración de vivienda familiar aquella en la que residan el cónyuge o pareja de hecho y, en su caso, sus descendientes, como consecuencia de la decisión judicial adoptada en el citado procedimiento de separación matrimonial o extinción de la pareja de hecho.»

Cinco. El artículo 58 queda redactado en los siguientes términos.

«Artículo 58. Proporcionalidad de las aportaciones propias de la persona empresaria individual o profesional.

A los efectos de lo previsto en el segundo párrafo del artículo 71.1.b) de la norma foral del impuesto, se entenderá que las aportaciones propias de la persona empresaria individual o de la profesional guardan un grado de proporcionalidad con las contribuciones que estos realizan a favor de las personas trabajadoras a su cargo cuando no excedan en 1,5 veces la media de dichas contribuciones.»

Seis. Se modifica el apartado 2 y se añade un apartado 3 al artículo 61, con el siguiente contenido:

«2. La reducción de los excesos se realizará en el primer ejercicio, dentro de los cinco ejercicios siguientes, en el que el resultado de minorar la base imponible general en el importe de las pensiones compensatorias y anualidades por alimentos sea positivo, respetando en todo caso las condiciones y los límites establecidos en los artículos 70, 71 y 72 y en la disposición adicional novena de la norma foral del impuesto y el orden previsto en el apartado 3 siguiente. A estos efectos, los excesos se reducirán por orden de antigüedad, reduciéndose en primer lugar los más antiguos.

3. Cuando en el período impositivo en que se produzca dicho exceso concurran aportaciones de la persona contribuyente y contribuciones imputadas por la promotora o promotor, tomadora o tomador o socia protectora o socio protector, que excedan de los límites establecidos en la norma foral del impuesto, se aplicarán las reducciones respetando el siguiente orden de preferencia:

1.º Contribuciones de ejercicios anteriores.

2.º Aportaciones a sistemas de empleo de ejercicios anteriores.

3.º Aportaciones de ejercicios anteriores a sistemas distintos al de empleo.

4.º Contribuciones del ejercicio.

5.º Aportaciones a sistemas de empleo del ejercicio.

6.º Aportaciones del ejercicio a sistemas distintos al de empleo.»

EK\CV GAO-I-2025-08389

Zazpi. 63. artikuluko 1., 2. eta 3. apartatuak honela geratzen dira idatzita:

«1. Zergaren foru arauaren 23., 82., 83 bis, 86. eta 87 bis artikuluetan aipatzen den desgaitasuna Zerga Administrazioari frogatzeko, Zuzenbidean onetsita dauden frogabideetako edozein erabili ahal izango da.

Dena den, pertsonaren legezko desgaitasuna frogatutzat joko da kasu hauetan:

a) Foru Aldundiko organo eskudunak, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutu Nazionalak edo autonomia erkidegoetako tokian tokiko organoak ziurtatzen duenean.

Alde horretatik, ez da beharrezkoa izango ziurtagiriak horretarako berariaz eginak izatea, eta aipatutako organoek egiten duten beste edozein agirik ere balio izango du, betiere baldin eta bertan argi eta garbi zehazten bada desgaitasun maila zein den eta nolako lotura duen 1. apartatu honetako lehen paragrafoan aipatutako artikuluetan, hurrenez hurren, jasotzen diren baremoekin.

b) Gizarte Segurantzak edo Klase Pasiboen Erregimen Bereziak ezintasun iraunkorra dela-eta aitortutako prestazioa jasotzen denean, baldin eta egoera hori aitortzeko 1. apartatu honetako lehen paragrafoan aipatutako artikuluetan esandako desgaitasun maila exijitzen bada.

Zehazki, ondoko kausotan joko da frogatutzat 100eko 33ko desgaitasuna edo handiagoa: Gizarte Segurantzako pentsiodunen kasuan, ezintasun iraunkor osoarengatik, absolutuarengatik edo baliaezintasun handiagatik pentsio bat aitortua dutenean, eta klase pasiboetako pentsiodunen kasuan, zerbitzurako ezintasun iraunkorragatik edo baliaezintasunagatik erretiro pentsio bat aitortua dutenean.

Nolanahi ere, ordezkaritza ahalmenak dituen kuradoretza ezartzen duen ebazpen judizialak erabakiko du 100eko 65eko desgaitasun maila edo handiagoa duten pertsonen alde zerga honetan aurreikusten diren xedapen espezifikoak aplikatu ahal izatea.

2. Ulertuko da pertsona bat zergaren foru arauaren 82., 83 bis, 86. eta 87 bis artikuluetan aipatzen den mendekotasun egoeran dagoela, haren mendekotasuna otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera aitortu denean. Dekretu horren bitartez, mendekotasun egoera baloratzeko baremoa onetsi zen, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritakoa.

Mendekotasun egoera eta dagokion maila Zerga Administrazioaren aurrean frogatzeko, Foru Aldundiko organo eskudunak, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak edo autonomia erkidegoetako tokia tokiko organoak emandako ziurtagiria aurkeztu behar da.

Alde horretatik, ez da beharrezkoa izango ziurtagiriak horretarako berariaz eginak izatea, eta aipatutako organoek egiten duten beste edozein agirik ere balio izango du, betiere baldin eta bertan argi eta garbi zehazten bada desgaitasun maila zein den eta nolako lotura duen 2. apartatu honetako lehen paragrafoan aipatutako baremoekin.

3. Aurreko apartatuetan aipatutako kenkariak aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da frogatzea desgaitasuna edo mendekotasuna eragiten duten zirkunstantziak zergaren sortzapen egunean gertatzen direla.

Dena den, desgaitasunak edo mendekotasun egoerak berariaz adierazita badauka iraunkorra dela, edo haren kalifikazioaren balio epean zergaren sortzapen data sartuta badago, ez da exijituko desgaitasunaren edo mendetasunaren frogagiria sortzapen datari buruzkoa izatea.»

Siete. Los apartados 1, 2 y 3 del artículo 63 quedan redactados en los siguientes términos:

«1. La condición de persona con discapacidad a que se refieren los artículos 23, 82, 83 bis, 86 y 87 bis de la norma foral del impuesto podrá acreditarse ante la Administración tributaria por cualquiera de los medios de prueba admitidos en Derecho.

No obstante, la referida condición legal de persona con discapacidad se considerará acreditada cuando:

a) Sea certificada por el órgano competente de la Diputación Foral, por el Instituto de mayores y Servicios Sociales o por el órgano correspondiente de las Comunidades Autónomas.

A este respecto no será preciso que las certificaciones estén expedidas especialmente a este efecto, siendo válido también cualquier documento expedido por los referidos órganos en el que conste, de forma indubitada, el grado de discapacidad y su relación con los baremos a que se hace referencia, respectivamente, en los artículos citados en el primer párrafo de este apartado 1.

b) Se perciba prestación reconocida por la Seguridad Social o por el Régimen Especial de Clases Pasivas, como consecuencia de incapacidad permanente, siempre que para su reconocimiento se exija el grado de discapacidad a que se refieren los artículos citados en el primer párrafo de este apartado 1.

En particular, se considerará acreditado un grado de discapacidad igual o superior al 33 por 100 en el caso de los pensionistas de la Seguridad Social que tengan reconocida una pensión de incapacidad permanente total, absoluta o gran invalidez y en el caso de pensionistas de clases pasivas que tengan reconocida una pensión de jubilación o de retiro por incapacidad permanente para el servicio o inutilidad.

En todo caso, la resolución judicial que establezca la curatela con facultades de representación determinará la aplicabilidad de las disposiciones específicas de este impuesto previstas a favor de las personas con grado de discapacidad igual o superior al 65 por 100.

2. Tendrá la condición de persona en situación de dependencia a que se refieren los artículos 82, 83 bis, 86 y 87 bis de la norma foral del impuesto, aquella persona cuya situación de dependencia haya sido reconocida en virtud de lo previsto en el Real Decreto 174/2011, de 11 de febrero, por el que se aprueba el baremo de valoración de la situación de dependencia establecido por la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia.

La condición de persona en situación de dependencia y su grado se considerará acreditado ante la Administración tributaria cuando sea certificado por el órgano competente de la Diputación Foral, del Instituto de mayores y Servicios Sociales o del órgano correspondiente de las Comunidades Autónomas.

A este respecto, no será preciso que las certificaciones estén expedidas especialmente a este efecto, siendo válido también cualquier documento expedido por los referidos órganos en el que conste, de forma indubitada, el grado de dependencia y su relación con los baremos a que se hace referencia en el primer párrafo de este apartado 2.

3. Para disfrutar de las deducciones a que se refieren los apartados anteriores, deberá acreditarse que las circunstancias determinantes de la discapacidad o de la dependencia concurren en la fecha de devengo del impuesto.

No obstante, cuando se trate de discapacidades o situaciones de dependencia en las que conste expresamente su carácter permanente, o en las que su calificación tenga un plazo de validez en el que esté comprendida la fecha de devengo del impuesto, no se exigirá que el documento acreditativo de la discapacidad o situación de dependencia se refiera a la fecha de devengo.»

EK\CV GAO-I-2025-08389

Zortzi. 67. artikulua honela geratzen da idatzita:

«67. artikulua. Etxebizitza kontuak.

1. Ohiko etxebizitzaren erosketarekin parekatzen da kreditu entitateetan, beste edozein ezarpen motatatik bereizitako kontuetan, diru kopuruak gordailutzea, baldin eta kenkarirako eskubidea eman duten zenbatekoak ohiko etxebizitza erosteko erabiltzen badira etxebizitza hori erosi aurreko sei urteak igaro baino lehen. Kenkaria aplikatu den zergaldietako zergaren sortzapen egunetik hasita kontatuko da epe hori.

Hala ere, aurreko paragrafoan aurreikusitako epea 10 urtekoa izango da, etxebizitza kontua ireki den urteko zergaren sortzapen egunean titularrak 36 urte baino gutxiago dituenean.

Ez da ulertuko etxebizitza kontu batean sartu eta horregatik kendutako zenbatekoak ohiko etxebizitzaren erosketara bideratzeko beharkizuna bete denik, kopuru horiek beste etxebizitza kontu batean sartzen direnean.

2. Kenkarirako eskubidea galduko da:

a) Zergadunak etxebizitza erostea ez den beste xede batzuetarako erabiltzen dituenean etxebizitza kontuan sartu diren eta kenkarirako eskubidea sortu duten kopuruak, eta horiek ez direnean berriro sartzen, oso-osorik, kreditu entitate bereko edo beste entitate bateko beste kontu batean, zergaren sortzapena gertatu baino lehen. Kopuruen zati bat erabiliz gero, aurrenik sartutakoak erabili direla joko da.

b) Kenkaria aplikatu zen zergaldiari dagokion zergaren sortzapenetik 6 urte igaro direnean eta kenkari horretarako eskubidea sortu duten zenbatekoak ohiko etxebizitza erosteko erabili ez direnean. Etxebizitza kontua irekitzen den urteko zergaren sortzapen egunean etxebizitza kontuaren titularrak 36 urte baino gutxiago baditu, epe hori 10 urtekoa izango da.

c) Ohiko etxebizitza geroago erosi eta kenkari honetarako eskubidea sortzen duten baldintzak betetzen ez direnean.

3. Zergadun bakoitzak etxebizitza kontu bakarra izan dezake.

4. Etxebizitza kontuak bereizita identifikatuko dira zergaren autolikidazioan, gutxienez datu hauek jarrita:

— Zein entitatetan ireki den kontua.

— Kontuaren zenbakia.

— Kontuaren irekiera data.

— Kontuaren saldoak ekitaldian izan duen gehikuntza.»

Bederatzi. III bis kapitulua gehitzen zaio V. tituluari, ondoren zehazten den edukiarekin:

«III bis kapitulua. Kenkariak gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenengatik.

70 bis artikulua. Kenkariak gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenengatik.

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onesten dituen maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren ondorioetarako, entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordin osoa zehazteko, honako hauek hartuko dira kontuan:

a) Ekarpenak egiten diren zergaldian entitate enplegatzaileko langile guztiek urtean jasotako soldata gordin osoa konputatuko da.

Ocho. El artículo 67 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 67. Cuentas vivienda.

1. Se asimilan a la adquisición de vivienda habitual las cantidades que se depositen en entidades de crédito, en cuentas separadas de cualquier otro tipo de imposición, siempre que las cantidades que hayan generado el derecho a deducción se destinen, antes del transcurso de seis años a la adquisición de la vivienda habitual, a contar desde el devengo del impuesto correspondiente a los periodos impositivos en que se practicó dicha deducción.

No obstante, el plazo previsto en el párrafo anterior será de 10 años cuando a la fecha de devengo del impuesto del año de apertura de la cuenta vivienda, la persona titular tenga una edad inferior a 36 años.

No se considerará cumplido el requisito de haber destinado a la adquisición de la vivienda habitual las cantidades depositadas y deducidas por una cuenta vivienda, por la mera imposición en otra cuenta vivienda de dichas cantidades.

2. Se perderá el derecho a la deducción:

a) Cuando la persona contribuyente disponga de cantidades depositadas en la cuenta vivienda que hayan generado derecho a la deducción para fines diferentes de la adquisición de su vivienda habitual y no se repongan o no se aporten íntegramente a otra cuenta de la misma o de otra entidad de crédito, con anterioridad al devengo del impuesto. En caso de disposición parcial se entenderá que las cantidades dispuestas son las primeras depositadas.

b) Cuando transcurran 6 años desde el devengo del impuesto correspondiente al periodo impositivo en que se practicó la deducción sin que las cantidades que hayan generado el derecho a esa deducción se hayan destinado a la adquisición de vivienda habitual. El plazo será de 10 años cuando la persona titular de la cuenta vivienda tuviera una edad inferior a 36 años a la fecha de devengo del impuesto del año de apertura de la cuenta vivienda.

c) Cuando la posterior adquisición de la vivienda habitual no cumpla las condiciones que determinan el derecho a la deducción por este concepto.

3. Cada contribuyente sólo podrá mantener una cuenta vivienda.

4. Las cuentas vivienda deberán identificarse separadamente en la autoliquidación del Impuesto, consignando, al menos, los siguientes datos:

— Entidad en la que se ha abierto la cuenta.

— Número de la cuenta.

— Fecha de apertura de la cuenta.

— Incremento del saldo de la cuenta correspondiente al ejercicio.»

Nueve. Se añade un nuevo capítulo III bis en el título V, con el siguiente contenido:

«Capítulo III bis. Deducciones por aportaciones a sistemas de previsión social.

Artículo 70 bis. Deducciones por aportaciones a sistemas de previsión social.

1. A los efectos de lo previsto en la disposición adicional segunda de la Norma Foral 1/2025, de 9 de mayo, por la que se aprueban la reforma del sistema tributario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y otras modificaciones tributarias, para la determinación del salario bruto anual total en la entidad empleadora se tendrán en cuenta las siguientes consideraciones:

a) Se computará el salario bruto anual de la totalidad de las personas trabajadoras de la entidad empleadora del periodo impositivo correspondiente a la realización de las aportaciones.

EK\CV GAO-I-2025-08389

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa gorabehera, gizarte aurreikuspeneko planak negoziazio kolektiboaren ondorioz sortu badira eta haiei atxikitzea langileen borondatezko erabakia bada, plan horiei atxikitako langile guztien urteko soldata gordina hartuko da kontuan.

b) Entitate enplegatzaileko langile bakoitzaren urteko soldata gordina zehaztuko da Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak 190 ereduari buruz onetsitako foru aginduan ezarritakoari jarraituta (190 eredua, «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga. Lan etekinen, jarduera ekonomikoen eta sarien gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak. Urteko laburpena»), aurreko a) letraren arabera entitate enplegatzailean aintzat hartzekoa den plantillari dagokiona.

2. Erregelamendu honen 61. artikuluan xedatutakoaren arabera, zergaldian posible bada aurreko ekitaldietan egindako ekarpenak egoztea, eta ekarpen horiek egin ziren zergaldian eskubidea ematen bazuten zergaren foru arauaren 90 bis eta 90 ter artikuluetan eta berrogeigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako kenkariak aplikatzeko, kenkari horiek murriztapenaren zergaldian aplikatu ahal izango dira, jatorrizko zergaldirako ezarritako portzentajeak eta gainerako baldintzak errespetatuz.

3. Gertatzen bada zergaldian badaudela ekarpenak eskubidea ematen dutenak zergaren foru arauaren 90 bis eta 90 ter artikuluetan eta berrogeigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako kenkariak aplikatzeko gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenengatik, eta horiekin batera aurreko ekitaldietako ekarpenak ere aplika daitezkeela (aurreko apartatuan aipatutakoak), aurreko urteetan egindako ekarpenen kenkariak aplikatuko dira lehen-lehenik.»

Hamar. 72. artikuluko 2. eta 3. apartatuak honela geratzen dira idatzita:

«2. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak onetsiko ditu autolikidazio ereduak eta autolikidazioa egiteko modalitate sinplifikatu edo bereziak, eta berak ezarriko du horiek nola eta zein epetan aurkeztuko diren.

Zergadunek beraiei buruz eskatzen diren datu guztiak bete beharko dituzte autolikidazioetan, eta ezarrita dauden edo ezartzen diren dokumentu eta frogagiriak ere aurkeztu beharko dituzte haiei erantsita.

3. Batera tributatzea aukeratzen bada, autolikidazioa familia unitateko adin nagusiko kideek sinatu eta aurkeztuko dute, eta pertsona horiek familia unitateko seme-alaben ordezkari moduan jardungo dute, Zergen Foru Arau Orokorrak 45. artikuluak jasotako terminoetan.

Aurrekoa gorabehera, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak metodo alternatiboak ezarri ahal izango ditu autolikidazioa sinatzeko, baita hura izenpetzeko obligaziotik salbuetsi ere, autolikidazioa aurkezteko modalitatea kontuan hartuta.»

Hamaika. 73. artikulua honela geratzen da idatzita:

«73. artikulua. Autolikidatzeko betebeharretik salbuestea.

1. Zergadunak ez dira behartuta egongo zerga autolikidatzera, lortzen dituzten errenten iturria honako hauetako bat bakarrik denean:

a) 20.000 euro bitarteko lan etekin gordinak urtean, banaka aitortzen bada. Batera aitortzen den kasuetan, muga hori etekin mota hau lortzen duen zergadun bakoitzari dagokionez aplikatuko da.

b) Kapitalaren etekin gordinak eta ondare irabaziak, salbuetsitakoak barne bi kasuetan, haien urteko kopurua, batera hartuta, 1.600 eurotik gorakoa ez bada.

No obstante lo previsto en el párrafo anterior, en el caso de planes de previsión social cuya creación obedezca a la negociación colectiva pero sean de adhesión voluntaria para las personas empleadas se tendrá en cuenta el salario bruto anual de la totalidad de las personas trabajadoras adheridas a los mismos.

b) El salario bruto anual en la entidad empleadora de cada persona trabajadora se determinará de acuerdo con lo previsto en la orden foral del diputado o de la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas por la que se aprueba el modelo 190, «Impuesto sobre la renta de las personas físicas. Retenciones e ingresos a cuenta sobre rendimientos del trabajo y de actividades económicas, y sobre premios. Resumen anual» correspondiente a la plantilla laboral de la entidad empleadora a considerar de acuerdo con la letra a) anterior.

2. Cuando, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 61 de este reglamento, sean imputables en el periodo impositivo aportaciones de ejercicios anteriores que en el periodo impositivo en que se realizaron fueron susceptibles de generar derecho a las deducciones previstas en los artículos 90 bis y 90 ter y en la disposición adicional cuadragésima de la norma foral del impuesto, darán derecho a aplicar dichas deducciones en el periodo impositivo de reducción, respetando los porcentajes y demás requisitos establecidos para el periodo impositivo de origen.

3. Cuando en el periodo impositivo concurran aportaciones que den derecho a la aplicación de las deducciones por aportaciones a sistemas de previsión social previstas en los artículos 90 bis y 90 ter y en la disposición adicional cuadragésima de la norma foral del impuesto con aportaciones de ejercicios anteriores mencionadas en el apartado anterior, se aplicarán en primer lugar las deducciones por aportaciones realizadas en años anteriores.»

Diez. Los apartados 2 y 3 del artículo 72 quedan redactados en los siguientes términos:

«2. Los modelos de autoliquidación, así como la utilización de modalidades simplificadas o especiales de autoliquidación, se aprobarán por la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, que establecerá la forma y plazos de su presentación.

Los contribuyentes deberán cumplimentar la totalidad de los datos que les afecten contenidos en las autoliquidaciones y presentarlas acompañadas de los documentos y justificantes establecidos o que se establezcan.

3. En caso de optar por la tributación conjunta, la autoliquidación será suscrita y presentada por los miembros de la unidad familiar mayores de edad, que actuarán en representación de las hijas y los hijos integrados en ella, en los términos del artículo 45 de la Norma Foral General Tributaria.

No obstante lo anterior, la diputada o el diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas podrá establecer métodos alternativos para la suscripción de la autoliquidación o, en su caso, dispensar de la suscripción expresa, en función de la modalidad de presentación de la autoliquidación.»

Once. El artículo 73 queda redactado en los siguientes términos:

«Artículo 73. Exclusión de la obligación de autoliquidar.

1. No estarán obligadas a autoliquidar el impuesto las personas contribuyentes que obtengan rentas procedentes exclusivamente de las siguientes fuentes:

a) Rendimientos brutos del trabajo, con el límite de 20.000 euros anuales en tributación individual. Este límite operará en tributación conjunta respecto de cada una de las personas contribuyentes que obtengan este tipo de rendimientos.

b) Rendimientos brutos del capital y ganancias patrimoniales, incluidos en ambos casos los exentos, que no superen conjuntamente los 1.600 euros anuales.

EK\CV GAO-I-2025-08389

Letra honetan xedatutakoa ez da aplikatuko inbertsio kolektiboko erakundeen akzio edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabaziei dagokienez, baldin eta haien atxikipen oinarria, 110.2 ezartzen denari jarraituta, ez bada zehaztu behar zerga oinarrian integratu beharreko zenbatekoa kontuan hartuta.

2. Aurreko apartatuan esandakoa gorabehera, kontura egindako ordainketen itzulketa jasotzeko, autolikidazioa aurkeztea nahitaezkoa izango da.»

Hamabi. Edukirik gabe uzten da 74. artikulua.

Bigarrena. 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek sartzen dira:

Bat. II. tituluari 12 ter artikulua gehitzen zaio, eta honela dio:

«12 ter artikulua. Gizarte aurreikuspeneko sistemetatik errenta moduan jasotzen diren prestazioei dagozkien kapital etekinak salbuestea.

1. Zergaren foru arauaren 9. artikuluko 39. zenbakian aurreikusitakoaren ondorioetarako, aldi baterako errentaren iraupenari buruzko beharkizuna ez da urratutzat joko kasu hauetan: kobratzen hasten denetik hasiera batean gutxienez 15 urteko epe bat ezarrita egonik, errenta jaso behar duen pertsona hiltzen denean, zergadunaren inbertsio asmoarekin zerikusirik ez duten beste inguruabar batzuk gertatzen direnean, edo, zurztasun prestazioen kasuan, beren izaeragatik 15 urteko iraupenera iristen ez direnean.

2. Errenta moduan jasotako prestazioaren gutxieneko iraupenari buruz edo haren zenbateko konstanteari buruz, 9. artikuluko 39. zenbakian aurreikusitako beharkizunak a posteriori ez betetzeak salbuespena galtzea ekarriko du berekin, eta zergaduna behartuta geratuko da ez-betetzea izan den zergaldiko aurrezpenaren zerga oinarrian konputatzera prestazioa jaso zen unean salbuetsitzat jo ziren etekinak. Hori ez da aplikatuko izandako alterazioa arrazoi tekniko edo finantzarioengatik gertatu bada.

Zergaldi bakoitzeko konputatzen diren etekinen zenbatekoari zenbateko horren 100eko 5 gehituko zaio, salbuespena aplikatu zen zergaldiko azken egunetik erregularizazio hori eragiten duten baldintzak bete ez ziren zergaldiko azken egunera bitarte igaro den urte bakoitzeko.»

Bi. 15. artikuluko 1. apartatua honela geratzen da idatzita:

«1. Zergaren foru arauaren 18.a) artikuluan jasotako prestazioen kasuan, alde batera utzita bai 1., 2. eta 4. zenbakietan aurreikusitakoak, azken horiek gizarte aurreikuspeneko mutualitateek langile autonomoen Gizarte Segurantzaren erregimen bereziaren sistema alternatibo gisa jarduten duten kasuetan, eta bai 6. zenbakian aipatutakoak, prestazioak modu mistoan jasotzen badira edozein motatako errentak kapital moduan jasotako kopuruekin konbinatuta, 19.2 artikuluko b) letran aurreikusitako portzentajeak kapital moduan kobratzen diren kopuruei bakarrik aplikatuko zaizkie.

Zergaren foru arauaren 18.a) artikuluko 6. zenbakian aipatzen diren prestazioen kasuan, behin kopuruak errenta moduan kobratzen hasi ondoren errenta hori modu aurreratuan berreskuratzen bada, azken etekin horri aplikatuko zaizkio prima bakoitzak errenta eratzeko unean daukan antzinatasunaren arabera dagozkion integrazio portzentajeak.»

Hiru. 99. artikuluari 3. apartatua gehitzen zaio, ondoren zehazten den eran, eta, horren ondorioz, egungo 3. eta 4. apartatuak 4. eta 5. apartatu bihurtzen dira.

«3. Zergaren foru arauaren 18. artikuluko a) letran aipatutako prestazioen kasuan, alde batera utzita bai 1., 2. eta 4. zenbakietan aurreikusitakoak, azken horiek gizarte aurreikuspeneko mutualitateek langile autonomoen Gizarte Segurantzaren erre-

Lo dispuesto en esta letra no será de aplicación respecto de las ganancias patrimoniales procedentes de transmisiones o reembolsos de acciones o participaciones de instituciones de inversión colectiva en las que la base de retención, conforme a lo establecido en el artículo 110.2, no proceda determinarla por la cuantía a integrar en la base imponible.

2. Sin perjuicio de lo previsto en el apartado anterior, para obtener la devolución de los pagos a cuenta efectuados será necesaria la presentación de la autoliquidación.»

Doce. Se deja sin contenido el artículo 74.

Segundo. Con efectos a partir de 1 de enero de 2026 se introducen las siguientes modificaciones:

Uno. Se añade un artículo 12 ter al título II con el siguiente contenido:

«Artículo 12 ter. Exención de los rendimientos de capital correspondientes a prestaciones de sistemas de previsión social percibidas en forma de renta.

1. A efectos de lo previsto en el número 39 del artículo 9 de la norma foral del impuesto, no se entenderá incumplido el requisito de duración de la renta temporal cuando, habiéndose establecido inicialmente un plazo de al menos 15 años desde el comienzo del cobro, se produzca el fallecimiento de la persona perceptora de la renta u otras circunstancias ajenas a la voluntad inversora del o de la contribuyente, o cuando se trate de prestaciones de orfandad que por su naturaleza no alcancen la citada duración de 15 años.

2. El incumplimiento a posteriori de los requisitos previstos en el número 39 del artículo 9, respecto a la duración mínima de la prestación en forma de renta o respecto a su cuantía constante, exceptuado el supuesto de que la alteración derive de motivos técnicos o financieros, implicará la pérdida de la exención y la obligación de computar en la base imponible del ahorro de la persona contribuyente correspondiente al periodo impositivo en que se produzca el incumplimiento, los rendimientos que se consideraron exentos en el momento de su percepción.

Al importe de los rendimientos que se computen por cada periodo impositivo se adicionará un 5 por 100 del citado importe por cada año que haya transcurrido desde el último día del periodo impositivo en que se aplicó la exención y el último día del periodo impositivo en que se incumplieron los requisitos que motivan esta regularización.»

Dos. El apartado 1 del artículo 15 queda redactado en los siguientes términos:

«1. En el caso de las prestaciones contempladas en el artículo 18.a) de la norma foral del impuesto, excluidas las previstas en los números 1.º, 2.º y 4.º cuando las mutualidades de previsión social actúen como sistemas alternativos al régimen especial de la Seguridad Social de los trabajadores por cuenta propia o autónomos, así como en el número 6.º, que se perciban de forma mixta combinando rentas de cualquier tipo con cobros en forma de capital, los porcentajes previstos en la letra b) de su artículo 19.2 sólo resultarán aplicables a los cobros efectuados en forma de capital.

En el caso de las prestaciones contempladas en el número 6.º del artículo 18.a) de la norma foral del impuesto, cuando una vez comenzado el cobro de las prestaciones en forma de renta, se recupere la renta anticipadamente, a este último rendimiento le serán de aplicación los porcentajes de integración que correspondan en función de la antigüedad que tuviera cada prima en el momento de la constitución de la renta.»

Tres. Se incluye un nuevo apartado 3 al artículo 99, con el siguiente contenido, renumerando los actuales apartados 3 y 4 como apartados 4 y 5.

«3. En el caso de las prestaciones contempladas en la letra a) del artículo 18 de la norma foral del impuesto, excepto las previstas en los números 1.º, 2.º y 4.º cuando las mutualidades de previsión social actúen como sistemas alternativos al régimen

EK\CV GAO-I-2025-08389

gimen bereziaren sistema alternatibo gisa jarduten duten kasuetan, eta bai 6. zenbakian aipatutakoak, atxikipena aplikatuko da prestazioan zergaren foru arauaren 37. artikuluko e) letran aurreikusitako etekinekin zer ikusirik ez duen zatiaren gainean, prestazio hori errenta moduan jaso edo kapital moduan jaso.»

Lau. 106. artikuluko 4. eta 5. apartatuak honela geratzen dira idatzita:

«4. Zergaren foru arauaren 37. artikuluko a) letratik d) letrara bitartean araututako etekinei arau horren 39.3 artikuluan aipatzen diren portzentajeak aplikagarri bazaizkie, portzentaje horiek kontuan hartuz kalkulatuko da atxikipen oinarria.

5. Aseguru kontratuengatik jasotzen diren zenbatekoetan eta kapitalen ezarpenaren ondorioz eskuratzen diren biziarteko nahiz aldi baterako errentetan, bai eta zergaren foru arauaren 37.e) artikuluan aipatzen diren etekinen kasuan ere, zergaren foru arauari jarraituz kalkulatutako zerga oinarrian sartu beharreko zenbatekoa izango da atxikipen oinarria.»

Bost. Beste xedapen gehigarri bat sartzen da, hamaseigarrena, eduki hau izango duena:

«Hamaseigarren xedapen gehigarria. Zergaren foru arauaren berrogeita bigarren xedapen gehigarria aplikatzeko erregela gehigarriak.

Gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenetatik eta kontribuzio enpresarialetatik datozen etekin positiboak zehaztearen ondorioetarako, zergaren foru arauaren berrogeita bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa erregela gehigarri hauen arabera aplikatuko da:

1.a. Gizarte aurreikuspeneko plan bakoitzean, zergadunak atxikipenaren unetik duen antzinatasuna banaka hartuko da kontuan.

2.a. Antzinatasuna ez badator bat urte osoekin, goitik biribilduko da.

3.a. Ezagutzen ez diren eskubide ekonomikoak planaren eskubide ekonomiko guztien parte erresidual bat direnean, etekin positiboa zergaren foru arauaren 37. artikuluko e) letran aurreikusitakoaren arabera zehaztu ahal izango da, eta parte erresidual hori ekarpen eta kontribuzio handiagotzat hartuko da.

Ondorio horietarako, eskubide ekonomiko ezezagunen partea parte erresidual bat dela joko da planaren eskubide ekonomiko guztien 100eko 5 edo 10.000 euro baino handiagoa ez denean.»

Sei. Laugarren xedapen iragankorra honela geratzen da idatzita:

«Laugarren xedapen iragankorra. Aurreikuspen entitateetatik kapital moduan jasotzen diren bigarren edo ondorengo prestazioak integratzea.

Zergaren foru arauak hogeita zazpigarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren ondorioetarako, hau ulertuko da:

a) Zergaren foru arauaren 19.2 artikuluko b) letran aurreikusitako 100eko 70eko integrazioa zergaren foru arauaren 37. artikuluko e) letran aurreikusitako etekinekin bat ez datorren prestazio osoaren gainean aplikatuko dela.

Hala ere, zergaren foru arauaren hogeita hamaseigarren xedapen iragankorrean xedatutakoa aplikatzea erabakitzen bada, kasuan kasuko integrazio portzentajea egindako ekarpen eta kontribuzioak hartzen dituen eta dagozkien kapital higigarriaren etekin positiboak biltzen dituen prestazio zatiari aplikatuko zaio.

b) Ekarpenen batez besteko iraupena zehazteko garaian, prestazioa jasotzeko arrazoi diren ekarpenak eta, egonez gero, kontribuzioak baino ez dira konputatuko.»

especial de la Seguridad Social de los trabajadores por cuenta propia o autónomos, así como en el número 6.º, la retención se practicará sobre la parte de la prestación, sea en forma de renta o de capital, que no se corresponda con los rendimientos previstos en la letra e) del artículo 37 de la norma foral del impuesto.»

Cuatro. Los apartados 4 y 5 del artículo 106 quedan redactados en los siguientes términos:

«4. Si a los rendimientos regulados en las letras a) a d) del artículo 37 de la norma foral del impuesto les fuesen de aplicación los porcentajes a los que se refiere el artículo 39.3 de la misma, la base de retención se calculará teniendo en cuenta tales porcentajes.

5. En las percepciones derivadas de contratos de seguro y en las rentas vitalicias y otras temporales que tengan por causa la imposición de capitales, así como en los rendimientos previstos en el artículo 37.e) de la norma foral del impuesto, la base de retención será la cuantía a integrar en la base imponible calculada de acuerdo a la norma foral del impuesto.»

Cinco. Se añade una disposición adicional decimosexta, con el siguiente contenido:

«Disposición adicional decimosexta. Reglas adicionales para la aplicación de la disposición adicional cuadragésima segunda de la norma foral del impuesto.

A efectos de la determinación de los rendimientos positivos procedentes de aportaciones y contribuciones empresariales a los sistemas de previsión social, lo previsto en la disposición adicional cuadragésima segunda de la norma foral del impuesto se aplicará con arreglo a las siguientes reglas adicionales:

1.ª Se tomará de manera individual la antigüedad en cada uno de los planes de previsión social de los que la persona contribuyente sea titular desde su adhesión.

2.ª Cuando la antigüedad no se corresponde con años completos se redondeará por exceso.

3.ª Cuando los derechos económicos cuya información se desconozca representen una parte residual de la totalidad de derechos económicos del plan, el rendimiento positivo se podrá determinar conforme a lo previsto en la letra e) del artículo 37 de la norma foral del impuesto, considerando dicha parte residual como mayor aportación y contribución.

A estos efectos, se considerará que la parte de los derechos económicos desconocidos representan una parte residual cuando no excedan del 5 por 100 de la totalidad de derechos económicos del plan o de 10.000 euros.»

Seis. La disposición transitoria cuarta queda redactada en los siguientes términos:

«Disposición transitoria cuarta. Integración de segundas o ulteriores prestaciones en forma de capital derivadas de entidades de previsión.

A efectos de lo previsto en la disposición transitoria vigesimoséptima de la norma foral del impuesto, se considerará que:

a) La integración al 70 por 100 prevista en la letra b) del artículo 19.2 de la norma foral del impuesto se realizará sobre la totalidad de la prestación que no se corresponda con los rendimientos previstos en la letra e) del artículo 37 de la norma foral del impuesto.

No obstante, cuando se opte por aplicar lo dispuesto en la disposición transitoria trigésima sexta de la norma foral del impuesto, el porcentaje de integración que proceda se aplicará sobre la parte de prestación que englobe tanto las aportaciones y contribuciones realizadas como los correspondientes rendimientos de capital mobiliario positivos.

b) Para la determinación del periodo medio de permanencia de las aportaciones se computarán exclusivamente las aportaciones y, en su caso, contribuciones consideradas generadoras de la percepción.»

EK\CV GAO-I-2025-08389

Zazpi. Beste xedapen iragankor bat gehitzen da, hamalaugarrena, honako edukia duena:

«Hamalaugarren xedapen iragankorra. Zergaren foru arauaren hogeita hamaseigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako araubide iragankorra kasu jakin batzuetan aplikatzea.

Zergaren foru arauaren hogeita hamaseigarren xedapen iragankorra aplikatzearen ondorioetarako, prestazioak ez baditu bere osoan hartzen gizarte aurreikuspeneko planean integratutako eskubide ekonomiko guztiak, 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen egindako ekarpenengatik eta kontribuzio enpresarialengatik kapital moduan jasotako prestazio zatia ekarpen eta kontribuzio horien eta plan horri egindako ekarpen eta kontribuzio guztien arteko proportzioaren emaitza izango da.

Proportzio horren emaitza errenta nahiz kapital moduan jasotako prestazioetarako kalkulatuko da, eta 2026ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko ekarpenen eta kontribuzio enpresarialen zenbatekoa gutxituz joango da, planaren etorkizuneko prestazioen proportzioa zehaztearen ondorioetarako.»

2. artikulua. Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea.

Lehena. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan ondorioak izateko, aldaketa hauek sartzen dira Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduan, ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsian:

Bat. Edukirik gabe uzten da 1. artikulua.

Bi. Edukirik gabe uzten dira 2. artikuluko 3. eta 4. apartatuak.

Hiru. III. tituluari 37 undecies artikulua gehitzen zaio, honela dioena:

«37 undecies artikulua. Kenkariak enpresek gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako kontribuzioengatik. Urteko soldata gordina entitate enplegatzailean.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistemaren erreforma eta zerga arloko beste aldaketa batzuk onesten dituen maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Arauaren bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren ondorioetarako, entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordin osoa zehazteko, honako hauek hartuko dira kontuan:

a) Kontribuzio enpresarialak egiten diren zergaldian entitate enplegatzaileko langile guztiek urtean jasotako soldata gordin osoa konputatuko da.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa gorabehera, gizarte aurreikuspeneko planak negoziazio kolektiboaren ondorioz sortu badira eta haiei atxikitzea langileen borondatezko erabakia bada, plan horiei atxikitako langile guztien urteko soldata gordina hartuko da kontuan.

b) Entitate enplegatzaileko langile bakoitzaren urteko soldata gordina zehaztuko da Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak 190 ereduari buruz onetsitako foru aginduan ezarritakoari jarraituta (190 eredua, «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga. Lan etekinen, jarduera ekonomikoen eta sarien gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak. Urteko laburpena»), aurreko a) letraren arabera entitate enplegatzailean aintzat hartzekoa den plantillari dagokiona.»

Bigarrena. 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan ondorioak izateko, ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduko III. tituluari bi kapitulu gehitzen zaizkio, eta I. kapitulua eta II. kapituluaren izena (azken horretan III. tituluaren egungo edukia jasotzen da) honela geratzen dira idatzita:

Siete. Se añade una disposición transitoria decimocuarta, con el siguiente contenido:

«Disposición transitoria decimocuarta. Aplicación del régimen transitorio previsto en la disposición transitoria trigésima sexta de la norma foral del impuesto en determinados supuestos.

A los efectos de la aplicación de la disposición transitoria trigésima sexta de la norma foral del impuesto, cuando la prestación no se corresponda con la totalidad de los derechos económicos integrados en el plan de previsión social, la parte de prestación en forma de capital que derive de las aportaciones y contribuciones empresariales realizadas con anterioridad al 1 de enero de 2026 será la resultante de la proporción existente entre tales aportaciones y contribuciones empresariales y el total de aportaciones y contribuciones realizadas a dicho plan.

El resultado de dicha proporción, calculada tanto para prestaciones en forma de renta como en forma de capital, irá consumiendo el importe de las aportaciones y contribuciones empresariales anteriores al 1 de enero de 2026, a los efectos de determinar la proporción en futuras prestaciones del plan.»

Artículo 2. Modificación del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades.

Primero. Con efectos para los periodos impositivos iniciados a partir de 1 de enero de 2025 se introducen las siguientes modificaciones en el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por el Decreto Foral 17/2015, de 16 de junio:

Uno. Se deja sin contenido el artículo 1.

Dos. Se dejan sin contenido los apartados 3 y 4 del artículo 2.

Tres. Se añade el artículo 37 undecies al título III con el siguiente contenido:

